

HOROSKOPOA

Txitxipelotak: *(Urtarrilaren 11tik otsailaren 12ra)*

Oso pertsona isila zara, oso ona zara ikasketetan. Burugogorra eta nagia zara, baino oso ausarta. Zorte ona duzu maitasunean eta beti gustatu zaizun neskarekin/mutilarekin egongo zara. Zure lagun hoberena piperra da, baino ez zara ondo eramaten meloiarekin. Datorren astean zorte ona edukiko duzu beraz aprobetxatu. Ilea moztu ondo geldituko zaizu. Hurrengo azterketetan zorte ona edukiko duzu, baina behintzat pixkat ikasi. Dirua eta familia edukiko duzu, baina ez erre, osasun txarra edukiko duzu-eta.(ENEKO)



Donutsak: *(Otsailaren 13tik martxoaren 13ra)*

Oso lagunkorra zara, eta oso jatorra. Ezkorra zara.

Maitasunean oso trebea, oso langilea zara eta etorkizun ona edukiko duzu. Zure lagun onena gozokia da eta oso ondo

konpontzen zara, baina txitxipelotak eta zu gaizki konpontzen zarete. Datorren

ostiralean neska-lagun/mutil-lagun berri bat egingo duzu. Saiatu ondo eramaten zure lagunarekin arazo txiki bat edukiko duzu-eta. Osasuna eta dirua edukiko duzu, baina ez duzu inguruan inor edukiko. Lan asko egingo duzu. (PERU)



Piperrak: *(Martxoaren 14tik apirilaren 14ra)*

Oso lotsatia zara. Mutilaren edo neskaren aurrean dagoenean oso lotsatuta jartzen zara. Asko kostatzen zaizu lagunak egitea. Handitan leku askotara joango zara. Txitxi-pilotekin oso ondo

eramaten zara, baina gaizki gozokiekin. Ebaluazio honetan asko utziko dituzu, beraz hurrengo ebaluazioan gehiago saiatu bestela errekuperatu beharko dituzu. Osasuna, dirua eta lagunak edukiko dituzu.

Baina ez duzu familia bat edukiko, horregatik saiatu norbait aurkitzen. (URKO ETA PERU)



Saltxitxa: (*Apirilaren 15etik maiatzaren 15era*)

Oso burugogorra zara, lagunekin ez zabilta oso ondo, beste saltxitxekin bakarrik eramaten zara ondo.

Neska/mutil laguna nahiago duzu gozokia izatea, nahiz eta gozokiak ez jakin. Beti edukiko duzu gendea zure ondoan. Ez zara oso ondo eramaten tomatearekin.

Datorren hilabete notak oso justu pasako dituzu. Etorkizun ona edukiko duzu, handitan dirua, lana eta maitasuna izango duzu. Lana enpresa batean egingo duzu, dirua ez duzu soberan edukiko eta ez gastatu tontakerietan. (UNAX ETA ENEKO)



Arroza: (*Maiatzaren 16tik ekainaren 16ra*)

Oso lagun gutxi dituzu, ez zara horren adiskide ona. Baina oso ona zara kirolelan. Lehenengo ebaluazioan

oso nota onak aterako dituzu, bigarrenetan okerragoak izango dira eta tutorea zurekin haserretuko da. Kirola pila bat gustatzen zaizu, oso kirolaria zara. Zure lagunak onena Tomatea da. Ez duzu lanik edukiko, baina lagunak dirua



eta familia bai. EZ duzu lana eduki behar nahiko dirua daukazulako. Hurrengo azterketan nota ona edukiko duzu, baina ikasi beharko duzu. Elduagoa zarenean asko bidaiatuko duzu. (PERU)

Tomatea: *(Ekainaren 17tik uztailaren 15era)*

Zu oso txarra zara maitasunean, baina oso adiskide ona zara. Oso nota onak aterako dituzu hirugarren ebaluazioan. Zure lagunik onenak espagetia eta arroza dira, oso bikote onak dira.



Hurrengo astean norbaitek deitu egingo dizu, zure talentuari galdetuz, baina ezetz esan iruzurti bat izango delako Lagunak eta familia edukiko duzu. Baina ez baduzu lana edukitzeko gogorik gaizki biziko zara. (PERU)

Meloia: *(Abuztuaren 14tik irailaren 3ra)*

Oso jatorra zara. Hitztuna, alferra eta baikorra zara. Datorren hilabetean nota onak izango dituzu baina, ez duzu maitasunean zorte ona izango.

Txitxipelotak eta zu ondo eramaten zarete. Eta tomateak eta zu ez. Handitan zortea eta maitasuna izango duzu, baina diruarekin kontuz ibili, lapur asko dago zure herrian suelto. Askok ikasi eta horrela nahi duzun lanean egin dezakezu lan. Kiroletan oso ona izango zara, baina kontuz berotu gorputz guztia partidu eta entrenamendu aurretik. Dirua eta familia osasuntsua izango duzu baina kontuz semaforoekin ez pasa gorrian dagoenean. (URTZI)



Espageti: (*Irailaren 4tik urriaren 5era*)

Oso pertsona ona eta eskuzabala zara. Oso burugogorra eta malgua. Indar asko duzu eta erresistentzia ere. Ondo eramaten zarete zuen artean, baino tomatearekin hobeto. Oso zikoitza zara, horregatik inbidia daukazu arrozari ondo eramaten delako tomatearekin. Zorte ona edukiko duzu lagunekin eta lana edukiko duzu. ez duzu familiarik edukiko baino lasai beti edukiko dituzu lagunak ondoan. Ikasi bestela hiru hilabete hau suspendituko duzu. (ENEKO)



Marmitakoa: (*Urriaren 6tik azaroaren 14ra*)

Euskal-Gastronomia asko gustatzen zaizu. Oso kezkatia zara baina ere alaia. Askok ikasten duzu baina ez dituzu nota onak ateratzen, GEHIAGO IKASI!! Platanoa zure etsai nagusienena da eta pipak zure lagun onena. Zorte txarra edukiko duzu azken astetan. Kontuz ibili! Familia, dirua eta lagunak edukiko dituzu, baino ez duzu osasun ona edukiko, ZAINDU! Hurrengo astean zutaz gustatzen den laguna afari batera joateko eskatuko dizu. Eta oso ondo pasatuko duzu. (URKO)



Gozokiak: *(Azaroaren 15etik abenduaren 19ra)*

Oso barregarria zara, barre asko eragiten duzuz. Asko gustatzen zaizu baina oso berekoa zara. kirola egitea. Maitasunean ez zara

ona baino denekin konpontzen zara ondo, donutsarekin gehien bat. Hurrengo urtean zorte ona edukiko duzu. Notak pasako dituzu eta zure familia pozik geratuko dira. Beti edukiko duzu jendea alboan, dirua eta familia, baino ez jan goxoki asko txarrak direlako.

(URKO, UNAX)



Platanoa: *(Abenduaren 20tik urtarrilaren 11ra)*

Platanoak jateak zorte ona ematen dizu. Antzinatek esaten zuten platanoa jatean urte osoan zortea edukiko duzula.

Platano horoskopon jaio direnak oso eskuzabalak zarete eta oso urduriak. Oso ondo eramaten zara Marmitakoarekin baina oso gaizki Meloiarekin. Nahiko justu edukiko duzu, baina bizitzeko adina, lana ere edukiko duzu egin lana gogor eta krisia pasako duzu. Zortea eta osasuna izango duzu baina begiratu zure gauzak hurbiletik zeren eta kartera lapurtzen saiatuko dira. (URKO)



DATAK: Urtzi, Urko, Eneko, Peru eta Unax